ASOCIACIÓN SOCIEDAD VASCA DE MINUSVÁLIDOS BIDAIDEAK ENTITATEARI "ATERIK-ATE" GARRAIO EGOKITUAREN PROGRAMA 2026. URTEAN EGITEKO EMANDAKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEN DUEN HITZARMENA.

CONVENIO REGULADOR DE LA SUBVENCION NOMINATIVA OTORGADA A LA ASOCIACIÓN SOCIEDAD VASCA DE MINUSVÁLIDOS BIDAIDEAK, PARA LA REALIZACION DEL PROGRAMA DE TRANSPORTE ADAPTADO "ATERIK-ATE", AÑO 2026.

HAUEK BILTZEN DIRA

ALDE BATETIK, AMAIA ANTXUSTEGI ZIARDA andrea, Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatua, Bizkaiko Foru Aldundiaren (IFZ: P4800000D) izenean eta haren ordezkari gisa Gobernu Kontseiluaren ko erabakiaren bidez hitzarmen hau formalizatzeko ahalmena duena,.

BESTE ALDE BATETIK, JOSE LUIS VAZQUEZ CASAL jauna, 14602412B NAN zenbakiduna, ASOCIACIÓN SOCIEDAD VASCA DE MINUSVÁLIDOS BIDAIDEAK entitatearen (erakunde onuraduna, aurrerantzean) (IFZ: G48303663), elkartearen Zuzendaritza Batzordeko Presidente gisa, eta kargu hori indarrean dagoela ziurtatzen du.

Bi aldeek agiri hau formalizatzeko behar den gaitasun juridikoa eta jarduteko ordezkaritza onartu dizkiote elkarri, eta elkar hartuta hauxe

ADIERAZTEN DUTE

Hitzarmen honen xedea indarrean dauden Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan jasotako dirulaguntza izenduna erakunde onuradunaren alde bideratzea da, hots, ASOCIACIÓN SOCIEDAD VASCA DE MINUSVÁLIDOS BIDAIDEAK entitatearen alde, aurrekontuko partida honen kargura: 0304 organikoa, 231109 programa, 45100 ekonomikoa, 2008/0267 proiektua, 2026. urteko ekitaldikoa; dirulaguntzaren zenbatekoa bostehun eta zortzi mila berrehun eta hirurogeita hamazazpi (508.277,00) eurokoa da. Horrez gain, dirulaguntzaren inguruko baldintzak eta konpromisoak ezarri dira eta onuradunak bere gain hartu ditu.

SE REUNEN

DE UNA PARTE, D.ª AMAIA ANTXUSTEGI ZIARDA, diputada foral del Departamento de Acción Social, en nombre y representación de la Diputación Foral de Bizkaia (NIF P4800000D), encontrándose facultada para la formalización del convenio por el Acuerdo del Consejo de Gobierno, de fecha

DE OTRA PARTE, D. JOSE LUIS VAZQUEZ CASAL, con D.N.I. 14602412B, en nombre y representación de la entidad ASOCIACIÓN SOCIEDAD VASCA DE MINUSVÁLIDOS BIDAIDEAK, (en adelante, la entidad beneficiaria) con NIF: G48303663, en su calidad de Presidente de la Junta Directiva de la asociación, cargo que asegura vigente.

Ambas partes se reconocen mutuamente la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente documento y aceptándose recíprocamente las representaciones a cuyo tenor actúan, de común acuerdo,

EXPONEN

Que la finalidad del presente convenio es canalizar a favor de la entidad beneficiaria la subvención nominativa que figura en los vigentes presupuestos generales del Territorio Histórico de Bizkaia, con cargo a la partida presupuestaria correspondiente al orgánico 0304, programa 231109, económico 45100, número de proyecto 2008/0267, del ejercicio 2026, a favor de la ASOCIACIÓN SOCIEDAD VASCA DE MINUSVÁLIDOS BIDAIDEAK, siendo el importe de la dotación de quinientos ocho mil doscientos setenta y siete (508.277,00) euros, así como establecer las condiciones y compromisos que asume la entidad beneficiaria.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Bizkaiko Foru Administrazioaren dirulaguntzen araubide juridikoa ezartzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 20.2. artikuluan xedatzen duenez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan norbaiten izenean aurreikusita dauden dirulaguntzak zuzenean eman ahal izango dira, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiei buruzko araudian ezarritakoarekin bat etorriz. Beste alde batetik, foru-arau horretako 26.1. artikuluak ezartzen duenez, hitzarmenak izango dira dirulaguntza horiek bideratzeko ohiko tresnak.

La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que establece el régimen jurídico de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral de Bizkaia, dispone en su artículo 20.2 que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones. Por otro lado, el artículo 26.1 de la citada norma foral establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.

Bestalde, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak, aurrean aipatutako foru-araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuenak, 50. artikuluan ezartzen du horrelako kasuetarako dirulaguntza emateko egintza edo hitzarmena bera dirulaguntzak emateko oinarri arautzailetzat joko dela, foru-arauan ezarritakoa aplikatzeko; gainera, hitzarmenak gutxienez jaso beharrekoa zehazten du.

Por su parte, el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, que aprueba el Reglamento de Subvenciones que desarrolla la mencionada norma foral, prevé en su artículo 50 que, en estos supuestos, el acto de concesión o el convenio tendrán carácter de bases reguladoras de la concesión, a efectos de lo dispuesto en la norma foral, y determina el contenido mínimo del citado convenio.

Beraz, aipatutako xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, alderdiek hitzarmen hau sinatzea adostu dute. Hona hemen hitzarmenaren

Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, que se regirá por las siguientes

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

Lehenengoa.- Dirulaguntzaren xedea eta erakunde hartzaileak, aurrekontu-esleipenaren arabera.

Primera.- Objeto de la subvención y entidades destinatarias, de acuerdo con la asignación presupuestaria.

ASOCIACIÓN SOCIEDAD VASCA DE MINUSVÁLIDOS BIDAIDEAK entitateari "ATERIK-ATE" Garraio Egokituaren Programa gauzatzeko dirulaguntza izenduna emateko erabiliko den aurrekontuko kreditua 231109 programan dago, IV. kapituluan: "Transferentzia arruntak". Hortaz, funtsak ezingo dira erabili kreditu horri ez dagozkion xede eta gastuetarako. Ondorioz, alderdi biek erabaki dute dirulaguntza erakunde onuradunak aurkeztutako proiektua finantzatzeko erabiliko dela. Jarraian zehazten denaren arabera, espediente honen parte diren proiektua, jardueren proiektuak eta diru-sarrera eta gastuen egoeraren aurreikuspenek osatzen dute:

El crédito presupuestario que ampara la concesión de la subvención nominativa otorgada a la Entidad ASOCIACIÓN SOCIEDAD VASCA DE MINUSVÁLIDOS BIDAIDEAK, para la realización del Programa de Transporte Adaptado "ATERIK-ATE", es un crédito del Capítulo IV "Transferencias corrientes" del programa 231109, por lo que no podrán aplicarse los fondos a gastos de distinta naturaleza y finalidad a la que es propia de los gastos imputables a dicho crédito. En consecuencia, ambas partes convienen que la subvención se destinará a financiar el proyecto presentado por la entidad beneficiaria, integrado por el Proyecto de Actividades y la Previsión del Estado de Gastos e Ingresos, que forman parte del presente expediente y que se ajusta al siguiente detalle:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

a) Proiektuaren ezaugarriak.

Urritasunen baten ondorioz besteren laguntzarik gabe ibiltzeko zailtasun handiak dituztenek osatzen dute mugitzeko mendekotasuna duten pertsonen kolektiboa. Haietako gehienek ezin dute laguntzarik gabe erabili garraio publikoko zerbitzuak, nahiz eta ezinduentzat egokituta egon.

"Aterik-Ate" zerbitzua beren beregi antolatu da kolektibo horrentzat, erabiltzaile bakoitzak irisgarritasunaren, kokapenaren eta segurtasun pasiboaren aldetik dituen beharrizanetarako erabat egokituta dauden ibilgailuekin egiten da, eta erabiltzaileak erabakitzen ditu ordua, abiapuntua eta helmuga, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan.

b) Egin beharreko jardueraren hartzaileak.

Garraio egokituaren programa Bizkaiko Lurralde Historikoko ezinduentzat da. Programan parte hartzeko diru-laguntza jaso duen erakunde onuradunak jarduera proiektu batean ezarritako betekizunak, zeintzuk espediente honen parte diren.

Bigarrena.- Aurkeztutako agiriak.

Dirulaguntza jaso duen entitateak agiri hauek aurkeztu ditu, besteak beste:

1. – Jarduera-proiektu bat eta diru-sarrera eta gastuen egoeraren aurreikuspen bat, diruz lagundutako jarduaren azalpena barne. Haien laburpenak espediente honen parte dira.

2.- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana.

Hirugarrena.- Zenbatekoa eta aurrekontuko kreditua.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa bostehun eta zortzi mila berrehun eta hirurogeita hamazazpi (508.277,00) euro da; 2026ko ekitaldiko partida honen kargura emango da: 0304 organikoa, 231109 programa, 45100 ekonomikoa, 2008/0267 proiektua.

a) Caracterización del proyecto.

El colectivo de personas con movilidad dependiente está constituido por quienes, presentando deficiencias de cualquier tipo, tienen severas dificultades para desplazarse de manera autónoma. La inmensa mayoría de ellos no pueden utilizar de manera independiente los servicios de trasporte público aun estando éstos adaptados.

El servicio específico Aterik-Ate se caracteriza por ser específico para este colectivo, realizarse con vehículos completamente adaptados a las necesidades de accesibilidad, acomodamiento y seguridad pasiva de cada usuario, y por ser éste el que determina el horario y punto de origen y destino del mismo dentro del Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Personas destinatarias de la actividad a realizar.

El programa de Transporte Adaptado se dirige a personas con discapacidad del Territorio Histórico de Bizkaia, que cumplan los requisitos establecidos por la entidad beneficiaria de la subvención y que constan expresamente en el proyecto de actividad que forman parte del presente expediente.

Segunda.- Documentación Aportada.

La Entidad subvencionada ha aportado entre otras, la siguiente documentación:

1. – Un proyecto de actividad y una previsión de estado de gastos e ingresos, explicativo de la acción objeto final de la subvención que forman parte del presente expediente.

2.- Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Tercera.- Cuantía y crédito presupuestario.

La cuantía máxima a subvencionar asciende a quinientos ocho mil doscientos setenta y siete (508.277,00) euros, consignada en el orgánico 0304, programa 231109, económico 45100, número de proyecto 2008/0267, del ejercicio 2026.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Laugarrena.- Erakunde onuradunak.

Erakunde onuradunak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen ditu; halaber, egunean dauzka bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrarekikoak.

Ezingo dira aurkeztu eta onuradunak izan emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan zerrendatzen diren inguruabarrak biltzen dituzten erakundeak. Hona hemen inguruabar horiek:

- Administrazio-, lan- edo zigor- bidean berdintasunerako eta sexuaren zioz bereizkeriarik ez jasotzeko eskubidea urratzeagatik zehapen irmoa jaso dutenek.

- Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. Tituluan, edo emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo foru arau honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Era berean, ezingo dira diruz lagundu sexuagatik bereizten duten jarduerak edo ekintzak.

Bosgarrena.- Aplikatu beharreko araubide juridikoa.

Dirulaguntza honi aplikatu beharreko araubide juridikoa testu hauetan ezarritakoa da:

a) 5/2005 Foru Araua, maiatzaren 31koa, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena.

Cuarta.- Entidades beneficiarias.

La entidad beneficiaria cumple con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y en especial se manifiesta que se encuentra al corriente de sus obligaciones fiscales y para con la Tesorería General de la Seguridad Social.

No podrán concurrir ni ser beneficiarias aquellas entidades en quienes concurran las circunstancias relacionadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y que son:

- Que hayan sido sancionadas en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.

- Cuyos fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

- Que incumplan las obligaciones establecidas en el Título III de la Ley 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, o en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres o en la presente norma foral.

Asimismo, no se podrán subvencionar las actividades o acciones que discriminan por razón de sexo.

Quinta.- Régimen jurídico aplicable.

El régimen jurídico aplicable a la presente subvención es el establecido por:

a) La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

b) 34/2010 Foru Dekretua, martxoaren 23koa, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Araudia onesten duena.

c) Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua.

d) 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

e) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Agindua, ekainaren 20koa

f) 4/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, pertsona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

g) Hitzarmen hau.

h) Administrazio-zuzenbideko gainerako arauak eta, horrelakorik ezean, aplikagarriak zaizkion zuzenbide pribatukoak.

Seigarrena.- Bateragarritasuna edo bateraezintasuna xede bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabide batzuekin.

Emandako dirulaguntza bateragarria da beste administrazio edo erakunde publiko batzuek zein entitate pribatuek xede bererako ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera eta baliabide guztiekin, horiei buruzko araudian ezarritakoa gorabehera. Hala ere, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin da izan dirulaguntza aplikatuko den jardueraren kostua baino handiagoa. Hala izanez gero, soberakina itzuli beharko da, eta sortutako berandutze-korrituak ordaindu beharko dira.

b) El Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

c) Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero de Transparencia de Bizkaia.

d) El Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la ley para la igualdad de mujeres y hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

e) La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

f) La Ley 4/2024, de 15 de febrero, de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas trans.

g) El presente convenio.

h) Las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las del derecho privado que le sean de aplicación.

Sexta.- Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.

La subvención otorgada será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas. No obstante, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada, procediendo el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente, para el caso en que se supere dicho coste.

Zazpigarrena.- Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak.

Ordainketa entitate onuradunari berari egingo zaio; hark kopurua oso-osorik erabili beharko du dirulaguntzaren berariazko xedeetarako, hitzarmen arautzaile honetan ezarritako betekizun guztiak bete ondoren. Dirulaguntzei buruzko Araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 30.3.d) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, (Dekretu horrek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatu zuen), gizarte-ekintzako proiektuak edo programak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek ez dute bermerik jarri behar, ez eta haien federazioek, konfederazioek eta elkarteek ere. Ordainketa-agindua hitzarmen arautzaile hau sinatzean emango da.

Gizarte Ekintza Saileko Pertsonen Autonomia Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren bidez ordainduko da, haren aurrekontuaren kargura.

Egin beharreko jardueren gastuen aurrekontua handitzen bada, horrek ez du inola ere ekarriko Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmen hau dela bide jarri beharreko diru kopurua handitzea.

Hitzarmen hau betetzeak sortzen dituen eskubideak, tasak, zergak, konpentsazioak eta kalte-ordainak erakunde onuradunaren kargura izango dira, bai eta hura betetzeko behar diren baimenak eta lizentziak ere.

Bizkaiko Foru Aldundiak emandako izaera bereko laguntzaren bat itzularazteko zehapen-prozeduraren bat izapidetu bada, ekarpenak ordaintzeko baldintza izango da prozedura hori amaituta egotea.

Séptima.- Plazos y modos de pago de la subvención.

La ordenación del pago será directa a favor de la entidad beneficiaria quedando, en todo caso, condicionada a la aplicación total de la cantidad concedida a los fines específicamente previstos y una vez cumplidos los requisitos establecidos en el presente convenio regulador. Conforme a lo dispuesto en el artículo 30.3.d) del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, las entidades no lucrativas, así como las federaciones, confederaciones y agrupaciones de las mismas, que desarrollen proyectos o programas de acción social, quedan exoneradas de la constitución de garantía. La ordenación del pago se realizará a la firma del presente convenio regulador.

El pago se instrumentará a través de la Dirección General para la Promoción de la Autonomía Personal del Departamento de Acción Social, con cargo a su presupuesto.

En ningún caso el aumento del presupuesto de gastos de las acciones a realizar implicará el aumento de las cantidades aportadas por la Diputación Foral de Bizkaia en virtud del presente Convenio.

El pago de los derechos, tasas, impuestos, compensaciones e indemnizaciones a que diera lugar el cumplimiento del presente Convenio, así como la obtención de todos los permisos y licencias precisos para su ejecución serán a cuenta de la entidad beneficiaria de la subvención.

El pago de las aportaciones quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de aportaciones de la misma naturaleza concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia, se halle todavía en tramitación.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Zortzigarrena.- Xedea gauzatzeko epealdia.

Dirulaguntzaren xedea 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gauzatuko da.

Octava.- Plazo de ejecución.

El plazo de ejecución del objeto de la subvención abarcará el periodo comprendido entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2026.

Bederatzigarrena.- Dirulaguntza aldatzea.

Erakunde onuradunak dirulaguntza aldatzeko eskatu ahal izango du diruz lagundutako jarduera gauzatzeko epealdia amaitu baino lehen, betiere dirulaguntza emateko aintzat hartutako inguruabarretako baten bat aldatu bada.

Halaber, onuradunak ezarritako epealdiak luzatzeko (araudiak horretarako aukera ematen duenean), emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murrizteko edo jarduerako ekintzak aldatzeko eskatu ahal izango du, baina horretarako ezinbestekoa izango da aldaketaren eragilea ustekabeko gertaera bat izatea edo aldaketa beharrezkoa izatea jarduera gauzatzeko, eta gainera ezingo du aldatu dirulaguntzaren xedea edo hirugarren pertsonen eskubideak urratu.

Novena.- Modificación de la subvención.

La entidad beneficiaria podrá solicitar, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, una modificación de la subvención, siempre y cuando la misma se fundamente en la alteración de alguna de las condiciones que fueron tenidas en cuenta para la concesión de la misma.

Del mismo modo, podrán solicitar modificaciones que supongan ampliación de aquellos plazos que, conforme a normativa, sean susceptibles de ampliación, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad, que serán autorizadas cuando traigan su causa en circunstancias imprevistas o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no dañen derechos de terceras personas.

Hamargarrena.- Dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua.

Erakunde onuradunak 2027ko uztailaren 1a baino lehen frogatu beharko du diruz lagundutako ekintza burutu duela eta emandako funtsak horretan erabili dituela.

Justifikazio hau Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da.

Azaldutakoa frogatzeko, justifikazio-kontua erabiliko da; horrekin batera, auditorearen txostena ere aurkeztuko da, alegia, Dirulaguntzei buruzko Araudiko 59. artikuluan ezarritakoa.

Justifikazio-kontua eta auditorearen txostena orri guztiak zenbakituta eta zigilatuta aurkeztu beharko ditu enpresa auditoreak.

Décima.- Plazo y forma de justificación de la subvención.

La entidad beneficiaria deberá justificar antes del 1 de julio de 2027, la realización de la acción subvencionada y la aplicación de los fondos a dicha acción.

La presentación de dicha justificación deberá realizarse a través la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

El sistema de justificación será el de la cuenta justificativa con aportación de informe de persona auditora, previsto en el artículo 59 del reglamento de subvenciones.

La cuenta justificativa con aportación de informe de la persona auditora deberá presentarse numerada y sellada por la empresa auditora en todas sus páginas.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontu-auditorea Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren menpeko Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribatuta egon beharko da. (Erakundeak bere urteko kontuen auditoria egin behar badu, txostena auditore berberak egin beharko du).

Auditoreak berrikusi beharreko justifikazio-kontuan honako hauek agertu beharko dira:

1.- Dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adierazita. Gutxienez eduki hauek izango ditu:

- DIRULAGUNTZAREN XEDEA. Diruz lagundutako jardueraren helburuaren azalpena.

- Egindako EKINTZEN DESKRIBAPENA (aldiak, tokiak, maiztasuna, betetze-egunak...).

- PERTSONA ONURADUNAK:

Pertsona onuradunen kopurua eta tipologia, edo diruz lagundutako plaza kopurua, sexuaren arabera bereizita.

- GIZA BALIABIDEAK (sexuaren arabera berezita) eta materialak: dirulaguntzaren xedea betetzeko erabili direnak.

Eskaeran aurkeztutako proiektuan aurrez ezarritako adierazle neurgarrien bidez lortutako LORPENAK.

2.- Memoria ekonomikoa; bertan datu hauek jaso beharko dira:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoan dagoen eredu orokorrari jarraiki, diruz lagundutako proiektuari edo jarduerari egotzitako sarreren eta gastuen egoeraren orria.

b) Aurreko idatz-zatian aipatzen den gastuen egoera-orria osatzen duen partida bakoitzeko zerrenda bat egon behar da, sailkatuta, diruz lagundutako jardueraren gastuak biltzen dituena. Zerrendan bertan, hartzekoduna eta agiria identifikatu behar dira, bai eta hari dagokion zenbatekoa, jaulkipen-data eta zenbateko hori zein egunetan ordaindu zen ere. Dirulaguntza

La persona auditora de cuentas deberá estar inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas. (En los supuestos en los que la Entidad tenga obligación de realizar la auditoría de sus cuentas anuales, el informe debe realizarlo la misma persona auditora).

La cuenta justificativa objeto de revisión por parte de la persona auditora comprenderá:

1- Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, que deberá tener el siguiente contenido mínimo:

- OBJETO DE LA SUBVENCIÓN. Descripción del fin de la actividad subvencionada.

- DESCRIPCIÓN DE LA ACCIONES realizadas (períodos, lugares, frecuencia, fechas de ejecución....)

-PERSONAS BENEFICIARIAS:

Número de personas beneficiarias y tipología, o plazas subvencionadas, desagregadas por sexo.

-RECURSOS humanos (desagregados por sexo) y materiales destinados al cumplimiento del objeto de la subvención.

LOGROS conseguidos mediante indicadores medibles previamente establecidos en el proyecto presentado en la solicitud.

2- Una memoria económica que deberá contener:

a) Un estado de ingresos y gastos imputados al proyecto o actividad subvencionada, conforme al modelo estandarizado que figura en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

b) Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, para cada una de las partidas que componen el estado de gastos señalados en el apartado anterior, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

hori aurrekontu baten arabera eman bada, aurrekontuan izandako desbideratzeak zehaztu behar dira.

c) Aurreko a) idatz-zatian aipatzen den sarreren egoera-orria osatzen duten partida bakoitzeko, Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuen zerrenda xehakatua, baita eskatzen den finantzaketa propioarena ere, bakoitzaren zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Erakunde eskatzailean behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitorpena, honako hau adierazten duena: proiektuari egotzi ahal zaizkion sarrera bakarrak aurreko idatz zatian berariaz adierazitakoak direla.

e) Hala badagokio, b) idatz-zatian aipatzen den zerrendan jaso diren kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak, izaera eta zenbatekoa, adierazi behar dira.

f) Dirulaguntzen Foru Arauaren 27.7 d) eta 29.3 artikuluak betetzeko, onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuen zerrenda xehatuta. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean, beren beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

g) Hala badagokio, entitateko pertsona batek, behar besteko ahalordea duenak, izenpetutako zinpeko aitorpena. Bertan Dirulaguntzen Erregelamenduaren 53.2 artikuluan definitutako lotutako pertsona edo erakundeekin azpikontrataziorik egon ez dela adieraziko da.

h) Itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko soberakinik badago, bai eta haien ondoriozko interesena ere.

Auditorearen txostena Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduan ezarritakoaren arabera egin behar da (agindu horren bidez, foru sektore publikoko dirulaguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartzen dira).

presupuesto se indicarán las desviaciones acaecidas.

c) Una relación detallada, por cada una de las partidas que componen el estado de ingresos señalado en el apartado a) anterior, de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, incluida la financiación propia exigida, en su caso, que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

d) Declaración jurada, suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente, en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto al margen de los recogidos en el apartado anterior.

e) Indicación, en su caso, de los criterios de reparto, naturaleza y cuantía de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b).

f) Una relación detallada de los tres presupuestos que, en aplicación de los artículos 27.7.d) y 29.3 de la Norma Foral de Subvenciones, deba haber solicitado la persona beneficiaria (cláusula undécima, apartado 3), así como una memoria justificativa cuando la elección no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

g) En su caso, declaración jurada, suscrita por una persona de la entidad con poder suficiente, en la que se manifieste que no ha existido subcontratación con personas o entidades vinculadas, definidas en el artículo 53.2 del Reglamento de Subvenciones.

h) Carta de pago de reintegro para el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

El informe de persona auditora se elaborará conforme a lo dispuesto en la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del diputado foral de Hacienda y Finanzas, que aprueba las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de las cuentas justificativas de subvenciones en el ámbito del sector público foral.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Horri dagokionez, honela egin behar da memoria ekonomikoaren berrikuspena, 945/2011 Foru Aginduaren eranskinaren 3. artikuluan, 2.b) letran aipatzen dena:

a) Proiektuari edo jarduerari egotzitako pertsonal-gastu guztien gainean.

b) Zuzeneko gainerako gastuen kasuan, gastuen zerrenda sailkatutik lagin bat hartu ahal da prozedura estatistikoak aplikatuta; % 95eko konfiantza-maila izan behar du, eta ±% 5eko errorea, gehienez.

Beren-beregi honako datu hauek ere adierazi behar dira: laginketa-sistemarik erabili den ala ez, eta, erabili bada, zein laginketa-sistema erabili den; aztertutako lagineko elementuen kopurua eta lagin horren zenbatekoa guztizkoaren aldean; eta aurkitutako akatsen ehunekoa aztertutako laginari dagokionez (elementuen kopurua eta ukitutako gastuen zenbatekoa ere aintzat hartuta).

Hamaikagarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

1. Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, beharrezkoak badira eta oinarri arautzaile hauetan ezarritako egikaritze-aldian egiten badira.

Bereziki, honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Banku-kontuetako korritu zordunak.

b) Korrituak, errekarguak, administrazio-zehapenak eta zigor-zehapenak.

c) Prozedura judizialetako gastuak.

d)Higiezinak erosteko finantza-gastuak.

A estos efectos, la revisión de la memoria económica, contemplada en el apartado 2.b) del artículo 3 del Anexo de la citada Orden Foral 945/2011, se realizará:

a) Sobre la totalidad de los gastos de personal imputados al proyecto/actividad.
b) Para el resto de gastos directos, se podrá seleccionar de la relación clasificada de gastos, una muestra mediante procedimientos estadísticos, que cumpla con un nivel de confianza del 95% y un error máximo de más/menos 5%.

Se indicará expresamente si se ha utilizado o no el sistema de muestreo y, si efectivamente se ha utilizado, se deberá indicar el sistema empleado, el número de elementos e importe de la muestra analizada respecto del total, y el porcentaje de deficiencias advertido respecto a la muestra analizada (también en término de número de elementos y cuantía de los gastos afectados).

Undécima.- Gastos subvencionables.

1. Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo de ejecución establecido por las presentes bases reguladoras.

En particular, no se considerarán gastos subvencionables:

a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.

b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.

c) Los gastos de procedimientos judiciales.

d) Los gastos financieros derivados de la adquisición de inmuebles.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. Dirulaguntzaren xede izan daitezke helburua gauzatzeko kontratatzen diren langileen gastuak. Hala ere, erakunde edo zentroen zuzendaritzetako edo kontseiluetako kide legez egiten diren jarduerek eragiten dituzten gastuak ezin izango dira langileria gastuetan sartu, baldin eta langileek ez badute dirulaguntzaren helburuari loturiko berariazko lanak egiteko lan-kontraturik, ez behar bezalako titulurik.

2. Podrán ser objeto de subvención, los gastos del personal contratado para la realización del fin de la misma. No obstante, no podrán incluirse como gastos de personal, los originados por las actividades realizadas en la condición de miembros de las Juntas Directivas o Consejos de Dirección de las Entidades, a no ser que se esté contratado laboralmente y capacitado, mediante la titulación necesaria y suficiente, para la realización de las labores específicas del objeto de la subvención.

Dirulaguntzaren xede izan daitezke boluntarioentzako konpentsazioen gastuak, Eusko Legebiltzarraren Boluntariotzari buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Podrán ser objeto de subvención los gastos de compensación de voluntariado, conforme a lo dispuesto en la Ley del Parlamento Vasco 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado.

Auditore batek justifikazio-kontuari buruzko txostena eman duela-eta, betebehar hori betetzeko egiten diren gastuak dirulaguntzaren xede izan daitezke.

Podrán ser objeto de subvención los gastos generados como consecuencia del cumplimiento de la obligación que establece la necesidad de informe de persona auditora de la cuenta justificativa.

Tributuetarako dirulaguntza eman ahal izango da, baldin eta dirulaguntza jasotzen duen entitateak berak ordaintzen baditu. Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak.

Los tributos son subvencionables cuando la entidad beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación.

3. Baldin dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen berezko araudian kontratu txikietarako ezarritako kopurua baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez badago behar beste entitate ondasun edo zerbitzuok hornitu edo egiten dituenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

3. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la normativa propia de los contratos del sector público, para el contrato menor, la entidad beneficiaria deberá, solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

Araudi horretan aipatutako betebeharrari dagokionez, hamahirugarren klausularen d) letran ezarritako erregulazioa hartuko da kontuan.

La obligación referida en la citada normativa se entenderá de acuerdo con la regulación prevista en el apartado d) de la cláusula decimotercera.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Aurkezten diren eskaintzen arteko hautapenerako irizpideak eraginkortasuna eta ekonomia izango dira. Eskaintza ekonomiko hoberena hautatzen ez bada, arrazoiak azaldu beharko dira memoria batean.

4. Gizarte Ekintza Sailak diruz lagundutako zerbitzua ustiatzeari lotuta ez dauden gastuak identifikatzen baditu, edo eskatutako gastua jardueraren izaerarako kualitatiboki edo kuantitatiboki egokia ez dela uste badu, doituta eta proportzionala iruditzen zaion zenbatekora murriztu ahalko da.

La elección entre las ofertas presentadas se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

4. Si el Departamento de Acción Social identifica gastos no vinculados a la explotación del servicio subvencionado o considera que el gasto solicitado no es adecuado cualitativa y cuantitativamente a la naturaleza de la actividad, éste podrá ser reducido a la cuantía que se considere ajustada y proporcional.

Hamabigarrena.- Azpikontratazioa.

Diruz lagundutako proiektua osatzen duten ekintza guztiak % 75eraino azpikontrata daitezke, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen Dirulaguntzen Lege Araubide Orokorra arautzen du) eta haren erregelamenduaren 53. artikuluan ezarritako baldintzetan.

Aurrekoa gorabehera, ezingo dira azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua handitu arren jarduera horri balio erantsirik ez dakarkioten jarduerak.

Hirugarrenekin egindako kontratuak baimentzen dira, baldin eta, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditu eta 60.000 eurotik gorakoak izanik, idatziz egiten badira eta betiere erakunde onuradunak gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu baditu, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 29.3 artikuluak ezartzen duen bezala. Erakunde onuradunak Bizkaiko Foru Aldundiari eman beharko dio egilespenaren berri.

Ezin izango da kontraturik zatitu, hari dagokion zenbatekoa gutxitu eta goiko paragrafoko betekizunak bete beharra saihesteko.

Duodécima.- Subcontratación.

Podrán subcontratarse hasta el 75 % del importe de las acciones que integran el proyecto subvencionado en los términos previstos por el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 53 de su Reglamento.

No obstante lo anterior, en ningún caso podrán subcontratarse actividades que, aumentando el coste de la acción subvencionada, no aporten valor añadido a la misma.

Se autoriza aquellos contratos con terceros que, excediendo del 20% del importe de la subvención y siendo su importe superior a 60.000 euros, se celebren por escrito, siempre y cuando la entidad beneficiaria haya solicitado como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, tal y como establece el artículo 29.3 de la Norma Foral de Subvenciones. La entidad beneficiaria queda obligada a informar a Diputación Foral de Bizkaia de la celebración de los mismos.

No podrá fraccionarse un contrato con el objeto de disminuir su cuantía y eludir el cumplimiento de los requisitos exigidos en el párrafo anterior.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Kontratistek erakunde onuradunarekin soilik izango dituzte betebeharrak. Izan ere, onuradunak hartuko du, Administrazioaren aurrean, diruz lagundutako ekintzak burutzeko erantzukizun osoa. Gainera, erakunde onuradunen ardura izango da hirugarren batzuekin hitzartutako ekintza diruz lagunduak gauzatzean errespetatu daitezen dirulaguntza jaso dezaketen gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez dirulaguntzaren oinarri arautzailetan ezarritako mugak. Kontratista horiek laguntzeko betebeharra dute, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluak xedatutakoarekin bat (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen Dirulaguntzen Lege Araubide Orokorra arautzen du).

Las personas contratistas quedarán obligadas solo ante la entidad beneficiaria, que asumirá la total responsabilidad de la ejecución de las acciones subvencionadas frente a la Diputación Foral de Bizkaia. Además, la entidad beneficiaria será responsable de que en la ejecución de las acciones subvencionadas concertadas con terceras personas se respeten los límites que se establecen en la normativa reguladora de la subvención, en cuanto a la naturaleza y cuantía de los gastos subvencionables. Estas personas contratistas estarán sujetas al deber de colaboración previsto en el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del Régimen Jurídico de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Erakunde onuradunak ezingo du inola ere hitzartu diruz lagundutako ekintzak osorik edo zati batean gauzatzea Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27.7 artikuluan aipatutako pertsona eta erakundeekin, 27.7 artikuluko d) idatz-zatian aurreikusitako kasuan izan ezik.

En ningún caso podrá concertarse por parte de la entidad beneficiaria la ejecución total o parcial de las acciones subvencionadas con las personas y entidades reseñadas en el artículo 27.7 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, reguladora del Régimen Jurídico de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, salvo en el supuesto previsto en el apartado d) de dicho artículo 27.7.

Hamahirugarrena.- Erakunde onuradunaren betebeharrak.

Decimotercera.- Obligaciones de la entidad beneficiaria.

Erakunde onuradunaren betebeharrak honako hauek izango dira:

La entidad beneficiaria se obliga a:

a) 5/2005 Foru Arauan (12. artikuluan) ezarritako betekizunak bete behar ditu, erakunde onuradun gisa hartu ahal izateko.

a) Cumplir los requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria establecida en la Norma Foral 5/2005 (artículo 12).

b) Dirulaguntzaren xede den jarduera ezarritako moduan eta epealdian gauzatu behar du, ezarritako baldintzak beteta.

b) Realizar la actividad que fundamente la concesión de la subvención en la forma, condiciones y plazo establecidos.

c) Dirulaguntzaren xede den ekintza gauzatu duela frogatu behar du hamargarren klausulan ezarri den bezala.

c) Justificar la realización de la acción subvencionada en la forma señalada en la cláusula décima.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

d) Zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratu baino lehen, hiru (3) hornitzaileren eskaintzak eskatu behar dira, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita, diruz lagundutako programari egotzitako gastua artikulu horretan aipatutako kopuruak baino txikiagoa bada ere.

d) Solicitar, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, tres (3) ofertas de diferentes proveedores, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29.3 de la Norma Foral de Subvenciones, con independencia de que la imputación del gasto al programa subvencionado en cuestión sea inferior a las cuantías referenciadas en el citado artículo.

e) Aplikatu beharreko araudiaren arabera aurkeztu behar dituen baimen eta erregistro guztiak lortu behar ditu.

e) Obtener todas las autorizaciones y registros a que estuviere obligada en razón de la normativa que le sea aplicable.

f) Dirulaguntza ematen eta ordaintzen denean, egunean eduki behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

f) Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social en el momento del otorgamiento y del pago del importe de la subvención.

g) Dirulaguntzen itzulketaren ondoriozko betebeharrak egunean eduki behar ditu, Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

g) Hallarse al corriente de pago de obligaciones por reintegro de subvenciones, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 16 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de subvenciones.

h) Jarduera egiteko behar diren lanari, aseguruei, arriskuetarako aurreneurriei, zerbitzuen erabiltzaileen segurtasun osoari eta abarri buruzko arau guztiak bete behar ditu.

h) Cumplir todas las normas laborales, seguros, prevención de riesgos, seguridad integral de las personas usuarias de sus servicios etc. que requiera el desarrollo de su actividad.

i) Gizarte Ekintza Sailaren egiaztapen-jarduketak eta Ogasun eta Finantza Foru Sailaren Finantza-kontrolerako jarduketak onartu behar ditu.

i) Someterse a las actuaciones de comprobación que en su caso efectúe el Departamento de Acción Social y a los de Control Financiero correspondientes al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas.

j) Bizkaiko Foru Aldundia babeslea dela berariaz agerrarazi behar du diruz lagundutako jarduera guztietan, haiek zabaldu, hedatzera eman edo argitaratzen diren guztietan, horretarako, Aldundiaren logotipoa eta lankidetza hori azaltzeko idazkuna jarriko dira argitaratzen diren publizitate eta argitalpen guztietan.

j) Hacer constar expresamente el patrocinio de la Diputación Foral de Bizkaia en cuantas actividades subvencionadas realicen y conlleven la divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas, mediante la incorporación de su logotipo y una leyenda explicativa en todos los medios publicitarios y publicaciones que se editen.

k) Bi hizkuntza ofizialak erabili behar ditu diruz lagundutako jarduera dela-eta jendaurrean egiten diren hitzaldi guztietan.

k) Utilizar las dos lenguas oficiales en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada.

l) Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea herritarrei bere jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren eskuorri, kartel edo bestelako euskarri guztietan.

l) Utilizar las dos lenguas oficiales en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

m) Dirulaguntzaren xedea betetzeko egiten diren agiri idatzietan zein grafikoetan sexismorik gabeko hizkera eta irudiak erabili behar ditu.

n) Dirulaguntzaren justifikazioan ematen diren datuak sexuaren arabera bereizi behar ditu, hau da, diruz lagundutako jardueraren onuradunetatik zenbat diren gizonak eta zenbat emakumeak adierazi, eta, behar izanez gero, emaitzak aztertu eta etorkizunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa lortzeko hartu beharreko neurriak azaldu.

Era berean, datuak sexuaren arabera bereizi behar ditu pertsonei buruz sortzen den estatistika orotan. Hori guztia, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduaren 24. artikulua betez.

o) Oztopo arkitektonikoak edo komunikaziorako trabak kentzen lagundu behar du, dirulaguntza honi loturik egiten diren zerbitzu, ekitaldi eta jarduera guztietan.

p) Proiektuaren jarduketa-eremu guztietan genero-berdintasunaren baldintza betetzen dela bermatzea.

q) Helburu bererako nazioko edo nazioarteko beste herri-administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako dirulaguntza eta laguntza guztien berri eman behar dio berehala Gizarte Ekintza Sailari.

r) Gizarte Ekintza Sailari dirulaguntzaren gaineko edozein gorabehera jakinarazi behar dio, baldin eta dirulaguntza jasotzeari edo, hala denean, ezarritako helburuak betetzeari begira eragin handia izango badu.

s) Gizarte Ekintza Sail honek eskatzen dion guztietan, dirulaguntzaren xede den ekintzaren onuradunen izenen zerrenda eman behar dio, jasotako laguntza espezializatuko zerbitzuak zehaztuta.

t) Erakunde onuradunak, bere kasuan, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren II. Tituluan jasotako eskakizunak bete beharko ditu

m) Utilizar en toda la documentación escrita y gráfica que se produzca en desarrollo del objeto subvencionado, lenguaje e imágenes de carácter no sexista.

n) Aportar en la justificación de la subvención datos desagregados por sexo, esto es, el número de hombres y mujeres personas beneficiarias de la actividad subvencionada y, en su caso, un análisis de los resultados y medidas a adoptar en el futuro para conseguir una mayor igualdad entre mujeres y hombres.

Así mismo, se deberán desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que se genere, todo ello al amparo del artículo 24 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

o) Colaborar en la eliminación de las barreras arquitectónicas o de comunicación, en todos los servicios, eventos o actividades que se organicen en función de la presente subvención.

p) Velar por el cumplimiento de la condición de igualdad de género en todos los ámbitos de actuación del proyecto.

q) Comunicar al Departamento de Acción Social, de forma inmediata, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad procedentes de cualquier Administración Pública o Ente público o privado, nacional o internacional.

r) Poner en conocimiento del Departamento de Acción Social cualquier eventualidad o circunstancia relativa a la presente subvención que pueda afectar sustancialmente a la percepción de la subvención o, en su caso, a la ejecución de los fines programados.

s) Atender el requerimiento que, en su caso, se le haga por este Departamento de Acción Social, a fin de que aporte relación nominal de las personas destinatarias de la acción subvencionada, con detalle de los servicios de atención especializada recibida.

t) La entidad beneficiaria estará obligada, en su caso, a cumplir las exigencias de publicidad activa contenidas en su Título II de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

u) Erakunde onuradunak emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan aurreikusitakoa bete beharko du; salbu eta interes publikoko arrazoiek betebehar horiek salbuestea justifikatzen badute; kasu horretan, organo proposatzaileak justifikazio-txostena aurkeztu beharko du. Honako hauek dira aipaturiko betebeharrak:

- emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea honako arlo hauetan: lanpostuak definitzea, horiek lortzea, kontratazioa eta iraungitzea, lanbide-sailkapena, sustapena, prestakuntza, segurtasuna eta osasuna lanean, ordainsarien politika, erantzunkidetasuna eta bizi pertsona, familiar eta lanekoa bateragarri egitea, lanaren kalitatea eta egonkortasuna, lanaldiaren iraupena eta antolaketa eta sindikatu-ekintza, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboa. Hala, lan-baldintza duin, zuzen eta diskriminaziorik gabekoak ziurtatuko dira.
- Zaintzea emakume eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokidea izatea eta irudia sustatzea honako balio hauetan funtsatuta: berdintasuna, presentzia orekatuta, dibertsitatea, erantzunkidetasuna eta rol zein genero-identitateen pluraltasuna. Hori guztia egingo da, proiektua edo jarduera egikaritzen denean, bai idatzizko, bai ahozko informazioan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barne eta kanpoko komunikazioan, formalean eta informalean, baita sortutako materialetan edo lanarekin zerikusia duten horietan ere.
- 50 langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat izateko betebeharra betetzen dela egiaztatu beharko dute.

u) La entidad beneficiaria deberá cumplir con lo previsto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, salvo que razones de interés público justifiquen la exención de estas obligaciones, en cuyo caso, el órgano proponente deberá presentar informe justificativo, y que son:

- Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral y, en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.
- Velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal, como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.
- Las personas físicas o jurídicas con una plantilla superior a 50 personas deberán acreditar el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres prevista en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Plantillan hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoek prebenitzeko, jarduteko, jarraipena emateko, ebaluatzeko eta lan-esparruan indarkeria matxista deuseztatzeko neurriak hartzen direla bermatu beharko dute, bereziki, sexu-jazarpena eta sexuarengatiko jazarpenari dagozkion neurriak.

- Las personas físicas o jurídicas con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral y, específicamente, las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.

Hamalaugarrena.- Ez-betetzeak eta itzulketak.

Itzulketa erakunde onuradunaren ekimenez eginez gero, ordainketa-gutuna eskatu ahal izango du aurretik hitzartu gabe, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan jasotako kasuetan, edo hitzarmen honetan ezarritako eta bere gain hartutako edozein betebehar betetzen ez denean, dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira eta, haiekin batera, dirulaguntza eman zen egunetik itzuli behar dela ebatzi arte sortutako berandutza-korrituak ordaindu beharko dira.

Aurreko paragrafoan aipatutako betebeharren betetze partzialak berekin ekarri ahal izango du dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea; hala gertatuz gero, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 16.2.k artikuluan ezarritako proportzionaltasun-irizpidea aplikatuko da.

Beste administrazio edo erakunde publiko batek edo entitate pribatu batek, nazio mailakoak nahiz nazioartekoak, dirulaguntza ematen badu eta, ondorioz, egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago jasotzen bada, gaindikina itzuli beharko da.

Berandutze-korrituak kalkulatzeko, dirulaguntza ordaindu zen unetik eta gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu arteko aldia hartuko da kontuan, baldin eta jarduera osorik bete dela egiaztatzen bada edo, hori ez egiaztatu arren, ikusten bada erakundeak argi eta garbi beteko dituela bere gain hartutako konpromisoak.

Decimocuarta.-Incumplimiento y reintegros.

Cuando el reintegro se produzca a iniciativa de la entidad beneficiaria, ésta podrá solicitar la correspondiente carta de pago sin contraído previo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 76 del Reglamento Foral de Subvenciones, aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas en concepto de subvención, con exigencia de los intereses de demora correspondientes desde el momento de pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, en los casos recogidos en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, o cuando se incumpla cualquiera de las obligaciones asumidas y establecidas en el presente convenio.

El cumplimiento parcial de las obligaciones referidas en el párrafo anterior podrá dar lugar al reintegro parcial de la subvención, a cuyo efecto se aplicará el principio de proporcionalidad, de acuerdo a lo establecido en el artículo 16.2.k de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

En el supuesto de concurrencia de subvenciones o ayudas de otras Administraciones o Entes públicos o privados, nacionales o internacionales, por las que se supere el coste de la actividad a desarrollar, se reintegrará el exceso obtenido.

El cálculo de los intereses de demora se realizará desde el momento de abono de la subvención hasta la fecha de presentación de la cuenta justificativa del gasto, siempre que se acredite el cumplimiento total de la actividad o, de no hacerlo, se observe por parte de la entidad una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hamabosgarrena.- Dirulaguntzaren finantza-kontrola.

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak 41. artikuluan ezarritakoa dela bide, erakunde onuradunak Foru Administrazioko organoei lagundu behar die, eta eurek eta finantza-kontroleko eskumenak dituzten organoek eskatzen dituzten agiri guztiak eman behar dizkie.

Decimoquinta.- Control financiero de la subvención.

En virtud del artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la entidad beneficiaria estará obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como por los órganos que tengan atribuidas funciones de control financiero.

Hamaseigarrena.- Aurreikusi gabeko alderdi araugarriak eta auziak.

Hitzarmen honetan ezarrita ez dagoen oro arautzeko, hauexek aplikatu beharko dira: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onetsitako Dirulaguntzen Foru Erregelamendua, eta aplikatu beharreko beste edozein xedapen.

Hitzarmen honen ondoriozko auziak, berorien izaera juridiko administratiboa dela-eta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Dirulaguntza hau ez dago Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.1 artikuluak estatu-laguntzatzat jotzen duenaren barruan.

Decimosexta.- Aspectos regulables no previstos y cuestiones litigiosas.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

La presente subvención no se encuadra dentro de lo que el artículo 107.1. del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea considera ayudas de Estado.

Hamazazpigarrena.- Dirulaguntzaren onuradun diren erakundeetako arduradunen datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalak tratatzeko, kontuan hartuko da zer ezartzen duten 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, zeinak hizpide hartzen baitu pertsona fisikoen babesa datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, zeinak arautzen baititu Datu Pertsonalen Babesa eta Eskubide Digitalen Bermea.

Decimoséptima.- Tratamiento de datos personales de las personas responsables de las entidades beneficiarias de la subvención.

Los datos personales serán tratados de conformidad a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679, de 27 abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Tratamenduaren arduraduna da Gizarte Ekintza Saileko Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia (Ugaskobidea 3 bis, 48014 Bilbo) eta datuak babesteko ordezkaria, berriz, Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atala (Kale Nagusia 2 – 6º, 48001 Bilbo).

El responsable del tratamiento es la Dirección General de Promoción de la Autonomía Personal del Departamento de Acción (Ugaskobidea, 3 bis 48014 Bilbao) y la persona Delegada de Protección de Datos es la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos (Gran Vía, 2 – 6º 48001 Bilbao).

Tratamendu hori ahal publikoak baliatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko egingo da.

Dicho tratamiento se realizará en el ejercicio de potestades públicas, el cumplimiento de obligaciones legales.

Datuak interesdunari edo haren ordezkariari eskatuko zaizkio, baita beste administrazio, erakunde, erregistro edo entitate publiko edo pribatu batzuei ere, legeak ezartzen dituen mugen barruan.

Los datos serán obtenidos de la persona interesada, o su representante, y de otras administraciones, organismos, registros o entidades públicas o privadas, dentro de los límites legales establecidos.

Bildutako datuen bidez kudeatuko dira harako dirulaguntza izendunak zein, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan kontsignaturik, zuzentzen baitzaizkie gizarte-zerbitzuen arloan jarduera eta programak egiten dituzten entitateei.

Los datos recabados serán utilizados para la gestión de las subvenciones nominativas consignadas en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, dirigidas a entidades para la realización de actividades y programas en el ámbito de los servicios sociales.

Datu pertsonalak legezko betebehar batek aginduta edo interesdunak baimena ematen duenean baino ez dira lagako. Horrez gainera, ez da aurreikusten hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara datu-transferentziarik egitea.

No se realizarán cesiones de datos personales, salvo por obligación legal o consentimiento de la persona interesada. Tampoco se prevén transferencias a terceros países u organizaciones internacionales.

Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzendu edo ezaba daitezela eskatzeko edota haien tratamendua mugatu edo aurkaratzeko idazki bat bidaliz Informazioaren Segurtasuna eta Datu Babesa Bideratzeko Atalera.

La persona interesada tiene derecho a acceder a sus datos, solicitar su rectificación, supresión o la limitación u oposición al tratamiento, mediante escrito dirigido a la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos.

Eskubide horietako bat baliatzeko aukera mugatu daiteke baldin bateraezina bada botere publikoen jardunarekin edo aplikagarria den araudiaren arabera legezko betebeharrak betetzearekin.

El ejercicio de alguno de estos derechos puede verse limitado cuando sea incompatible con el ejercicio de los poderes públicos o con el cumplimiento de obligaciones legales de acuerdo con la legislación aplicable.

Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio xeheagoa kontsulta dezakezu Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan, hartarako prozeduran.

Puede consultar la información detallada sobre el tratamiento de los datos personales en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, en su procedimiento correspondiente.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hamarzortzigarrena.- Diruz lagundutako jardueran parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalen tratamendua.

Ebazpen honen xede den dirulaguntzaren entitate onuradunak bakarrik erantzungo du diruz lagundutako jardueratik eratorritako datu pertsonalen tratamenduengatik, eta bereziki bete beharko ditu zenbat ere printzipio eta obligazio erator litezkeen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB)Erregelamendutik, zeinak hizpide hartzen baitu pertsona fisikoen babesa datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez eta zeinaren bidez indargabetzen baita 95/46/CE Zuzentaraua, eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikotik, zeinak arautzen baititu Datu Pertsonalen Babesa eta Eskubide Digitalen Bermea.

Esandakoari jarraikiz, hartuko ditu zenbat ere neurri tekniko eta antolakuntzazko behar diren hori betetzen dela ziurtatzeko, eta Bizkaiko Foru Aldundia erantzukizun orotik salbuetsita geldituko da datuen tratamenduan.

Baldin eta entitateak Bizkaiko Foru Aldundiari komunikatu behar badizkio diruz lagundutako jardueretako parte-hartzaileen datuak, orduan Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak hartuko du tratamendua egiteko ardura, eta datuok integratu egingo dira "Autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasun- eta desgaitasun-egoeretarako laguntza ematea" arloaren tratamenduan.

Horrez gain, Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoa betetzeko, entitateak jakinaraziko die diruz lagundutako jardueretako parte-hartzaileei ezen beren datuak Bizkaiko Foru Aldundiari komunikatuko dizkiola, hala zorroko beste zerbitzu batzuekin bateragarri denez egiaztatzeko eta gizarte-zerbitzuen arreta osoa bermatzeko.

Hori guztia gorabehera, datu pertsonalak unean-unean errekeritu ahalko dira hala egiaztatzeko ea dirulaguntza benetan aplikatzen ari den zertarako eman baita eta hartarako, dirulaguntzak erregulatzen dituen araudia betez.

Decimoctava.- Tratamiento de datos personales de las personas que participan en la actividad subvencionada.

La Entidad beneficiaria de la subvención objeto de esta resolución será la única responsable de los tratamientos de los datos personales derivados de la actividad subvencionada, debiendo cumplir, particularmente, con los principios y obligaciones que pudieran derivarse del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE y de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

En virtud de lo anterior, adoptará cuantas medidas técnicas y organizativas sean necesarias para garantizar tal cumplimiento, quedando la Diputación Foral de Bizkaia eximida de cualquier responsabilidad en el tratamiento de estos datos.

En caso de que la entidad deba comunicar a la Diputación Foral de Bizkaia datos de las personas participantes en las actividades subvencionadas, la Dirección General para la Promoción de la Autonomía Personal pasa a actuar como responsable del tratamiento, integrándose dichos datos al tratamiento de "Promoción de la autonomía personal y atención a la dependencia y la discapacidad".

Asimismo, en cumplimiento de lo establecido en el art. 13 del Reglamento, la entidad informará además a las personas participantes de las actividades subvencionadas de que sus datos serán comunicados a la Diputación Foral de Bizkaia, con el objeto de verificar la compatibilidad con otros servicios de cartera y garantizar la atención integral de los servicios sociales.

Todo ello sin perjuicio de que puntualmente pudieran requerirse datos personales para la verificación de la efectiva aplicación de la subvención a los fines para los que se concede, en cumplimiento de la normativa reguladora de subvenciones.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Hemeretzigarrena.- Arau-hausteak eta zehapenak.

Dirulaguntzen arloko arau-hauste administratiboak dira Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen erregimen juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan jasotako ekintzak eta ez-egiteak, eta zigorra jaso ahalko dute, zabarkeria huts modura ere.

Dirulaguntza honi dagozkio arau-hausteei eta ezarri beharreko zehapenei dagokienez, guztiz aplikatzekoa izango da foru-arau horren 47-63 artikuluetan xedatzen den araubidea.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute

Decimonovena.- Infracciones y sanciones.

Constituyen infracciones administrativas en materia de subvenciones las acciones y omisiones tipificadas en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y serán sancionables, incluso a título de simple negligencia.

Será de plena aplicación el régimen dispuesto en los artículos 47 a 63 de la citada norma foral, en caso de infracciones respecto a la presente subvención y las correspondientes sanciones a imponer.

En prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente convenio.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 3V1Z-CIGP-B5DF-QKX9
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus